

Banaiz Bagara Elkartea

Hernanin

• *Banaiz Bagara Elkartea (Petra Elser)*

Banaiz Bagara elkarteak jatorri guztietako lagunentzat euskara ikasteko eta erabiltzeko talde irekiak eskaintzen ditu, batez ere ahozotasuna eta komunikazioari zuzenduta. Hitz egiteaz gain, Euskal kantuak, dantzak eta kirolak ere praktikatzeko ditugu eta herriko bizitzan parte hartzen saiatzen gara.

Hernaniko Zumitza taberna 2010eko otsailan nolabait, *Banaiz Bagara* elkartearen sehaska izan zen... mundu osoan ospea lortzeko (euskararen) abiapuntua.

Zumitzako atzeko gelan asteak eta asteak ermitañoaren egoeran egon ondoren... *Ufa, azkenean! Bi fitxaje!* Hernaniko bi kale saltzaile xelebre:



Ousseinou...



... eta Moussa (ezkerrean).

... eta poliki-poliki taldea joan da handitzen... gehitu zaizkigu Maroko, Pakistan... eta dagoeneko azpiko argazkitan ikus daitekeena, hori izan zen katalizatzaileria...

Hortik aurrera, eta *Banaiz Bagara* mundura abiatu baino lehen, mundu erdia hurbildu zen Zumitzara... Peru, Kolonbia, Hernani... eta Brasil.



Marokoarrak, pakistandarrak, peruarak, kolonbiarrak eta brasildarrak Zumitza tabernan (2010ean).

... eta *jo ta ke* landu genituen bizitzan behar-beharrezkoak diren edukiak:



"Zer hartu nahi duzu?"

Ondoren denak ikasitakoa praktikan jartzeko irrikan zeuden eta azkenean taldetxo handiena Txema tabernan bildu zen... eta beraz, ze *erremedio!* gure lehenengo orduko taldekide fidelekin mudantza egin genuen.



Talde bat Txema tabernan.

... gainera hainbat gauza gehitu ditugu gure programara:

Euskal kantu saioak



Kantu saioa Mireia Otzerinjauregi kantu irakaslearekin, eta Txema Tabernan.

Euskal dantzak



Dantza saioa Patxi Montero dantza irakaslearekin eta San Joan konpartsako kideekin.

... eta jakina, gure taldeak, perretxikoen antzera, lur ona aurkituz gero, orduan eta gehiago hazten dira. Eta horrela 2011ko udazkenean bigarren talde bat martxan jarri genuen, Biteri kultur etxean.




Biteri kultur etxeko taldeak.

Tartean, gazetxoak ere hurbildu ziren...



2011ko udan Hernanira bizitzera etorri ziren gazteak eta umeak jolasten, amek taldean parte hartzen duten bitartean. Eta AEK Euskaltegian.



Eta noski! talde berrian ere dantza egin beharra zegoen. *Altza porru!*



2012ko udan egin zen Euskal dantza tailerra.

Gaur egun, hain gara famatuak, mundu guztiak gurekin argazkiak atera nahi dituela...



Bertso saioa, Maialen Lujanbio eta Unai Agirrerekin.

... eta disko batean ere kantu bat badugu
jada, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen
Zazpikoloroa diskoan *Banaiz Bagara* kantua.



Banaiz Bagara
kantuaren grabaketa.



Zazpikoloroa, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen CDA,
Banaiz Bagara kantuarekin



2012ko apirilean, Milagrosan Kantu Topa-
keta Mundiala ospatu genuen, Porrotx eta
Ana Elorza kantu irakaslearekin.



Kantu horrekin (euskararen)
munduko oholtzen gainean
gabiltza arrakastatsu...

Lasarte-Oriako Udaberria bertso saioa:
Banaiz Bagara kantatzen eta dantzatzen.
Bakarlaria: Rosi Paiva jatorriz brasildarra
den hernaniarra.

Hori bai, horretarako behar beharrezkoak ditugu entrenamendu fisikoak...



Pala tailerra (2012ko udan) Tilosetako frontoian; adin guztietako partaideak hurbildu ziren.



2012ko Andoaingo Kilometroak prestatzen.



Euskarazko Topaketa Mundiala. 2012ko apirilan, bazkaria egin genuen Txema tabernan.

... eta horrelaxe jarraituko dugu lanean, baita 2013ra begira ere!

Gonbidatua zaude,
zatoz gure menua dastatzera
eta ikusiko duzu,
oso ondo pasatuko dugu
elkarrekin!!!